



# Osasuna Politika Guztietan

## BATZORDE TEKNIKOA



Txosten  
sektoriala **2020**

**Gazteria**

2022ko otsailaren 7an



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Jarraian zehazten diren jarduerak, osasun-arloarekin lotutakoak, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren (2018-2021) bilakaerari buruzko urteko txostenetan jaso dira. Urteko txosten horietan, Gazte Planean definitutako parametroetan oinarrituta abian jarritako gazte-politiken zerrenda eta xehetasunak jaso ohi dira, baita osasunaren arlokoak ere, noski.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren egiturak euskal gazteen osasuna hobetzeko diseinatutako bi ardatz espezifikoko ditu, besteak beste: “Ongizate eta bizitza osasungarri”rako ardatza, eta “berdintasuna eta gizarteratzea” ardatza. Ardatz horiek helburu estrategikoak, esku hartzeko ildoak eta lehentasunezko ildoak definitzen dituzte aldi berean, eta, beraz, Gazte Planak urtero jasotzen dituen gazte-jarduerak plangintza eta egitura horri erantzuten diote.

ARDATZA	ARLOA	HELBURUA	ILDOA
<b>Ongizatea eta bizitza osasungarria</b>	Osasuna	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza
			Aisialdi osasungarriko jarduerak sustatzea
			Arreta eta prebentzioa antsietate eta depresio-egoeretan
		Haurren gainpisua eta obesitatea txikitzea	Elikadura osasungarria sustatzea
			Gazteen artean jarduera fisikoa eta ariketa sustatzea
		Gazteen artean sexu-bizitza osasungarria bultzatzea	Hezkuntza afektibo-sexuala
			Sexu-transmisio bidezko gaixotasunen prebentzioa
		Gazteen artean portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (substantziekin edo gabe) prebenitzea	Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa murriztea
			Jokoarekin / sare sozialekin lotzen diren arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa
			Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
<b>Berdintasuna eta gizarte-ratzea</b>	Gizarte ekintza eta berdintasuna	Bazterkeria - arriskuko egoerei aurrea hartzea	Oinarrizko beharren estaldura
		Identitate desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea	Berdintasuna etxean/familian (kontziliazio arduratsua)
			Kolektiboen arteko berdintasuna
		Emakumeen aurkako indarkeria desagerraztea	Sentsibilizazioa eta prebentzioa (tolerantzirik ez)
			Arreta integrala
		Tratu txarrak emateko modu berriak prebenitzea	Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta
			Eskola-jazarpenaren detekzioa, prebentzioa eta arreta (bullying eta cyberbullying)

---

Egitura horri jarraituz eta helburu horiei erantzuten saiatuz, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek edo erakundeek gazte-politikak jartzen dituzte abian urtero. Sailarteko azken Batzordea 2020ko abenduaren 2an egin zen. Batzorde horretan aurkeztu eta onartutako txostenak Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean kontsulta daitezke.

Gure kasuan, aurreko 2 ardatzei dagokienez gure Gazteria Zuzendaritzatik zuzenean egin ahal izan genituen jarduketak Gazteen Euskal Behatokian egin dira batez ere, Bilbon duen egoitzan. Bertan, prestakuntza-ikastaroak, azterlanak eta ikerketak egiten dira, eta gazteria-adierazleen sistema eguneratua mantentzen da edozein kontsultatarako. Jarraian, 2020an egindako jardueren programa eta 2021erako plangintza zehaztu ditugu.

## GAZTERIA ZUZENDARITZAREN 2020KO EKINTZAK

Behatokiaren Gazteen Adierazleen Sistemak **17 adierazle ditu osasunaren arloan, ia guztiak 15 eta 29 urte bitarteko pertsoneri buruzkoak**. Adierazle horietako batzuk oinarritzat hartu dira **“Gazteen egoeraren diagnostikoa 2020”** argitalpenaren osasunari buruzko kapituluan; argitaratze-fasean dago oraindik, eta horiek guztiak on-line daude eskuragarri, sexuaren, adin-taldeen eta lurralde historikoen arabera banaketekin, **Gazteen Euskal Behatokiaren webguneko on-line adierazleen sisteman**.

1. Osasun txarraren prebalentzia
2. Osasun arazo kronikoen prebalentzia
3. Antsietate eta/edo depresio arazoen prebalentzia
4. Obesitate tasa
5. Ariketa fisikoa
6. Tabakoaren ohiko kontsumoa
7. Alkoholaren gehiegizko kontsumoa
8. Haxixaren ohiko kontsumoa
9. Droga-mendekotasunen ondoriozko tratamenduen hasierak

- 
10. Interneten erabilera problematikoa
  11. Ziberjazarpena
  12. Nerabeen arteko haurdunaldi tasa (15-17 urte)
  13. Haurdunaldiaren borondatezko eteteak
  14. Sexu-harreman arriskutsuak
  15. GIBagatiko infekzio berriak
  16. Suizidioen ondoriozko heriotza-tasa
  17. Zirkulazio istripuen ondoriozko heriotza-tasa

Gazteen Euskal Behatokia, **aurrez aurreko hamar prestakuntza-ikastaro eta lau online hitzaldi** egin ditu 2020an, bere urteko prestakuntza-planaren barruan, eta osasuna sustatzearekin lotutako tresnak eman dizkie gazteekin eta nerabeekin lan egiten dutenei. Ikastaro horietan gazteekin lotura duten **229 pertsonak** hartu dute parte.

Garrantzitsua da azpimarratzea pandemiak eragindako egoeraren ondorioz aurrez aurreko ikastaroetan parte hartu duten pertsonen kopurua 12ra murriztu behar izan dela.

Ikastaro horietan **parte hartu duten pertsonen batez besteko balorazioa 8,8koa** izan da, **0tik 10era bitarteko eskalan**.

2020an honako ikastaro hauek egin dira:

- **“Dibertsitate funtzionala (degaitasuna) duten pertsonak gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan sartzea”**. 2020ko otsailak 6, 13 eta 20. 25 pertsona bertaratu ziren.
- **“Indarkeria matxista eta gazteria: prebentzio pilulak” (hiru edizio)**, martxoaren 2an eta 9an (15 pertsona), martxoaren 3an eta 10ean (26 pertsona) eta martxoaren 6an eta 13an (15 pertsona).
- **“On-line jokoak, kirol apustuak, sare sozialak, ... Adizioak edo kondaira?”**. Apirilak 22 eta 29, eta maiatzak 6. (10 pertsona).

- 
- **[“Sexu-hezkuntza: kalitateko harremanen aldeko apustua”](#)** urriak 14, 21 eta 28. (12 pertsona).
  - **[“3.0 erotika: zibersexua, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezaroan”](#)**, urriak 22 eta 29, eta azaroak 5. (13 pertsona).
  - **[“Mutil nerabeekin emakumeenganako indarkeriaren inguruko gaiak nola landu”](#)** (hiru edizio). Azaroaren 18an eta 25ean (9 pertsona), azaroaren 19an eta 26an (11 pertsona) eta abenduaren 3an eta 10ean (10 pertsona).
  - “COVID-19aren aurkako prebentzio eta babes neurriak eta protokoloak, Euskadin haurren eta gazteen aisialdiko eta denbora libreko jardueretan aplikatzeko” (online). Ekainaren 25ean, 1.822 izen-emate eta ekainaren 30ean, 1.374.
  - “Zientzia eta teknologia gure egunerokoan” (online). Ekainak 11: 29 pertsona.
  - “Zibersegurtasuna edo gure ekintzen erantzukizuna geure gain hartzeko erronka” (online). Ekainak 18: 20 pertsona.
  - “Bideo-deiak egiteko eta komunikatzeko tresnak” (online). Ekainak 25: 39 pertsona.

## 2021EKO EKINTZEN PLANGINTZA

2021ean Gazteen Euskal Behatokiak bere bi urtez behingo Gazteen Panorama estatistika ofiziala argitaratuko du, osasunari buruzko 17 adierazleak eguneratuta.

Azkenik, 2021ean eta informazioa eguneratu ahala, Gazteen Euskal Behatokiak adierazleak eguneratuko ditu, bai bere webguneko Adierazle Sisteman, bai egoki diren ikerketetan.

2021. urtean, gazteekin lan egiten duten eragileei zuzendutako **[prestakuntza-ikastaro](#)** hauek aurreikusi ditu Behatokiak:

---

## AURREZ AURREKO PRESTAKUNTZA

### **Sexu-hezkuntza: kalitateko harremanen aldeko apustua**

Eguna: urriak 14, 21 eta 28

### **Zientziarekin eta teknologiarekin trasteatzen**

Eguna: otsailak 3, 10 eta 17

### **Hezkuntza formalean eta ez formalean gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko estrategia**

#### **Bilbo**

Hezkuntza ez formala: martxoak 3 eta 10

Hezkuntza formala: martxoak 17 eta 24

#### **Donostia**

Hezkuntza ez formala: martxoak 5 eta 12

Hezkuntza formala: martxoak 18 eta 26

### **Jokoaren pedagogia**

Eguna: apirilak 14 eta 21

### **Zibersegurtasuna edo gure ekintzen erantzukizuna geure gain hartzeko erronka**

Eguna: maiatzak 5, 12 eta 19

### **Sormena eta taldeekin lan egitea**

Eguna: urriak 6, 13 eta 20

### **Nerabeekin berdintasunari eta maskulinitasunari buruz lan egiteko tresna pedagogikoak**

#### **Bilbo**

Eguna: azaroak 3 eta 10

#### **Donostia**

Eguna: azaroak 4 eta 11

---

## ONLINE PRESTAKUNTZA

**Europako gazteria-proiektuak diseinatzea eta kudeatzea. ERASMUS+GAZTERIA eta EUROPAKO ELKARTASUN GORPUTZA programen berritasunak Europako 2021-2027 diru-laguntzen esparruan**

Eguna: otsailak 23, 24 eta 25

**Sexu-dibertsitatea: gizon-emakume izateko hamaika modu**

Eguna: ekainak 1 eta 8

## PRESTAKUNTZA MISTOA (AURREZ AURRE-ONLINE)

**Beldur Barik jarrera: indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean**

Eguna: irailak 22 eta 29